

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OYÓN-OIONGO UDALA

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillari hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko eskumenak eskuordetzea

Bo200921E. Oiongo Udalak erabaki du Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillari hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko eskumenak eskuordetzea, eta espedientean zehazten dira zer zerbitzu eta ahalmen eskuordetzen diren eta zein baldintzatan.

Eskuordetzea denbora mugagaberako izango da, salbu eta aparteko eta ustekabeko ezintasunen bat sortzen bada, eta, horren ondorioz, zerbitzua Oiongo Udalari itzuli behar bazaio, edo aparteko beste inguruabar batzuk sortzen badira.

Oiongo Udalak ez du erakunde eskuordetuaren esku jartzen eskumen eskuordetua eraginkortasunez emateko baliabiderik. Era berean, ez du inolako zenbatekorik transferituko eskuordetutako eskumena baliatzearen ondorioz sor daitezkeen gastuei aurre egiteko. Beraz, eskumen eskuordetze horrek ez du arriskuan jartzen Oiongo Udalaren finantza jasangarritasuna.

Erakunde eskuordetuak, beranduenez, 2020ko azaroaren 2an proposatuko ditu eskuordetutako eskumena zaintzeko eta kudeatzeko mekanismoak.

Eskuordetzea egiteko baldintza da eskuordetzaren erakunde hartzaileak eskuordetza onartzea.

Oion, 2020ko irailaren 21a

Alkatea

EDUARDO TERROBA CABEZÓN